

IRAKASKUNTZA-GIDA 2022/23

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 4. maila

IRAKASGAIA

25066 - Hezkuntzaren Psikologiako Practicumerako Sarrera

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Hezkuntza egoeratan murgilduta dauden adin guztietako pertsonen prozesu psikologikoen eta portaeraren eremuetan esku hartu, diagnostikatu eta prebentzioa egitea helburu duen arloa da hezkuntzaren psikologia. Arlo horretan lan egiten duten pertsonak maila eta mota guztietako hezkuntza erakundeetan garatu ohi dute haien jardura profesionala (araututako zein ez araututako sistemetan, formaletan zein ez formaletan).

Hala, "Hezkuntzaren psikologiari buruzko practicumari sarrera" delako 6 kredituko derrigorrezko ikasgaia ikaslegoak kanpoko praktika akademikoak dagokion tokian behar bezala egin ditzan beharrezko duen prestakuntza jaso dezan dago antolatuta.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Esku hartze psiko-hezitzailearen arloan lanean diharduen psikologia-profesionalaren funtzioak ezagutzea.
2. Hezkuntza-testuinguruetan egon daitezkeen esku hartzeko beharrak identifikatzeko gai izatea.
3. Hezkuntza-testuinguruetan aplikagarri diren tresnak eta esku-hartze programak ezagutzea.
4. Hezkuntza-testuinguruetan esku hartze psiko-hezitzailea egiteko beharrezkoak diren oinarriko jarraibideak ezagutzea.
5. Hezkuntza-testuinguruetan esku hartze psiko-hezitzailea egiteko programak diseinatzeko gai izatea.
6. Esku hartze psiko-hezitzailearen arloan psikologia-profesionalak egiten duen jardunaren etika- eta lege-arautegiak ezagutzea.
7. Ikasgaia osatzen duten modulu guztietan genero-ikuspegia landuko da zeharkako gaitasun gisa.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Orientazioa eta tutore-ekintza plana.
2. Lanbide-orientazioa genero-ikuspegitik.
3. Atxikimendua, enpatia eta jendarte aldeko jokabidea.
4. Ikaskuntza zaitasunak: psikologoaren zeregina.
5. Esku hartze psiko-hezitzailea kirolaren bitartez.
6. Metodologia hezkidetzalea: sexismoa transmititzeko moduak identifikatu eta berdintasunerako aldaketak.
7. Psikogerontologia.
8. Esku hartze psiko-hezitzailea sexualitatearen eremuan.
9. Gurasotasuna eta laguntza goiztiarra.

METODOLOGIA

- Kasu-azterketa; arazoetan oinarritutako ikaskuntza; ebaluazio tresnak erabiltzen ikasteko trebakuntza eta esku-hartze psiko-hezitzailea egiteko programak lantzea.

IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|------|------|----|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak | 45 | 15 | | | | | | | |
| Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a | 67,5 | 22,5 | | | | | | | |

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 50
- Bestelako kalifikazio tresnak % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMAK

NORMALTASUN EGOERAN:

IKASLEGO PRESENTZIALA: eskoletan egingo diren jardueren eta taldeko lanaren bitartez ebaluatuko da ikaslegoa. Justifikatutako arrazoi bat dela medio, eskola batera huts egiten duen ikaslegoak eskola horren irakaslearekin adostuko du eskola horri dagokion ebaluazio-sistema.

IKASLEGO EZ PRESENTZIALA: gai bakoitzeko eskola bat baino gehiagotara joaten ez diren ikasleek ohiko deialdian (maiatzan) ikasgaien landutako eduki eta gaitasunei buruzko azterketa egingo dute. Azterketak 2 atal izango ditu: test motatako azterketa bat eta garatu beharreko kasu praktiko bat.

ITXIALDI EGOERAN: IKASGAIA BIRTUALKI EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Hezkuntzaren psikologiako practicumari sarrera" ikasgaiaren ebaluazio plana aurrez aurreko ebaluazioaren parekoa izango da eta eGela irakaskuntza plataforma birtualean eskuragarri dauden baliabideen bitartez egingo da.

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasle guztiek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, nahiz eta etengabeko ebaluazioan parte hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren zatiaren ardura duen irakasleari eskolak hasten diren egunean edo, askotxo jota, eskolak hasi eta bost egunera.

Azken ebaluazioa aukeratu duten ikasleentzat azterketaren egun ofizialean egin beharreko azterketara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NORMALTASUN EGOERAN:

Aukeratutako ebaluazio sistema edozein izanda ere, ohiko deialdian ikasgaia edo hari dagokion gairen bat gainditzen ez duten ikasleek azken ebaluazioari dagokion probaren bidez ebaluatuko dira.

Azterketaren egun ofizialean egin beharreko azterketara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

ITXIALDI EGOERAN:IKASGAIA BIRTUALKI EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Hezkuntzaren psikologiako practicumari sarrera" ikasgaiaren ebaluazio plana aurrez aurreko ebaluazioaren parekoa izango da eta eGela irakaskuntza plataforma birtualean eskuragarri dauden baliabideen bitartez egingo da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Eskoletan banatuko direnez gainera, "oinarrizko bibliografia" atalean agertzen direnak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- * Borrego, M. eta Díaz, J. (2000). Orientación vocacional y profesional: materiales de asesoramiento para la ESO y Bachillerato. Madril: CCS.
- * Caballo, V. E. eta Simon, M. A. (2002). Manual de psicología clínica infantil y del adolescente: Trastornos específicos. Madril. Pirámide.
- * Deba Barrenako Garapen Ekonomikorako Elkarte (z.g.). Genero gabeko lan orientazioa. Deba Barrenako Garapen Ekonomikorako Elkarte. <https://www.debegesa.eus/eu/hiritarrak/aukera-berdintasuna/genero-gabeko-lan-orientazioa>.
- * Dosil, J. (2004). Psicología de la Actividad Física y del Deporte. Madril: McGraw Hill.
- * Fernández-Ballesteros, R. (2000). Gerontología social. Madril: Pirámide.
- * Federación Estatal de Asociaciones de Profesionales de Atención Temprana (GAT). (2005). Libro blanco de Atención Temprana. Madril: Real Patronato sobre Discapacidad
- * García García, A.M. et al (2002). Materiales para la observación y el análisis del sexismo en el ámbito escolar. Gijón: Consejería de educación y cultura. Centro de profesorado y de recursos de Gijón (gela birtualean eskuragarri).
- * García Albertos, M. (2018). Mayores y diversidad sexual. Revista Prisma social, 21.
- * Méndez, J.L (2016). Aprender y vivir mejor en la escuela: Orientaciones y dinámicas para tutoría en Secundaria (Materiales para educadores/as). Madril: CCS.
- * Ortiz, M. D. R. (2004). Manual de dificultades de aprendizaje. Madril: Pirámide.
- * Pandora Mirabilia (2011). La coeducación en la escuela del siglo XXI. Madril: Catarata (liburutegian eskuragarri).
- * Reizabal, L. (2015). Genero-berdintasunean hezteko gida. Bilbo: UEU eta EHU (liburutegian eskuragarri).
- * Rivas, F. (2003). Asesoramiento vocacional: Teoría, práctica e instrumentación. Bartzelona: Ariel.

- * Santana, L.E. (2015). Orientación educativa e intervención psicopedagógica: cambian los tiempos, cambian las responsabilidades profesionales. Madrid: Pirámide.
- * Simon Rodríguez, M.E. (2010). La igualdad también se aprende: cuestión de coeducación. Madrid: Narcea (liburutegian eskuragarri).
- * Weinberg, R. S. eta Gould, D. (1996). Fundamentos de psicología del deporte y el ejercicio físico. Barcelona: Ariel.
- * Williford, A.P., Carter, L.M. & Pinta, R.C.. (2016) Attachment and School Readiness. In J. Cassidy & P. Shaver (Eds.), Handbook of attachment: Theory, research, and clinical applications (pp. 966-983). New York: Guilford
- * Yanguas, J., Leturia, F.J., Leturia, M. eta Uriarte, A. (1998). Intervención Psicosocial en Gerontología: manual práctico. Madrid: Cáritas Española.

Gehiago sakontzeko bibliografía

- * Álvarez, M. eta Bisquerra, R. (1998). Los modelos en orientación: Modelos de orientación e intervención psicopedagógica. Barcelona: Praxis.
- * Álvarez Rojo, V. (1995). Orientación educativa y acción psicopedagógica. Madrid: EOS.
- * Antón Sierra, M.A. (2012). No da igual. Uso no sexista del lenguaje. Palencia: Universidad Popular de Palencia (gela birtualean eskuragarri).
- * Calenti, M. (dir.) (2010). Gerontología y Geriátrica. Valoración e intervención. Madrid: Panamericana.
- * Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco (2013). Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (gela birtualean eskuragarri).
- * Fernández-Ballesteros, R. (2009). Psicología de la vejez. Una psicogerontología aplicada. Madrid: Pirámide.
- * Giménez, F. J., Saénz-López, P. eta Díaz, M. (2005). Educar a través del deporte. Huelva: Universidad de Huelva.
- * Kuder, F. (2005). Kuder E Completo: Cuestionario general de intereses. Barcelona: Paidós.
- * Montorio, I. eta Izal, M. (1999). Intervención psicológica en la vejez. Madrid: Síntesis.
- * Pinazo, S. eta Sánchez, M. (2005). Gerontología, actualización, innovación y propuestas. Madrid: Pearson.
- * Rey, A., Canales, I. eta La Cruz, M. I. (2008). Memoria en Movimiento. Programa de estimulación cognitiva a través de la motricidad para personas mayores. Santiago de Compostela: Obra Social la Caixa.
- * Rodríguez, M.L. (1998). Los fundamentos de la orientación profesional. Barcelona: Ariel.
- * Segura, J. (2016). Psicología aplicada al deporte adaptado. Barcelona: UOC.
- * Thomas, A. (1981). Psicología del Deporte. Barcelona: Herder.

Aldizkariak

UZTARO giza eta gizarte-zientzien aldizkaria. <https://www.uztaro.eus/>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.haezi.org/eu/inicio.html>
<http://www.etxadi.org/eu/inicio.html#>
[http://www.euskadi.eus/web01-a1guraso/eu
 ](http://www.euskadi.eus/web01-a1guraso/eu )

OHARRAK